

2. BIDAIARIEN GARRAIOA

2.1 Bidaiarien errepideko garraioa. Metodologia

EAEEn ibilgailu arinez joaten diren bidaiarien eskaera kalkulatu da, 2006. urteko batez besteko lanegun batean.

Horretarako bi iturritatik jasotako informazioa erabili da:

- **2006ko Sorburu-Helburu inkesta EAEko Etxeetan (SHI).** 2006ko azaroan egin zitzairen EAEEn bizi direnei, eta baita Nafarroa, Kantabria, Burgos, Errioxa eta Frantziako lurralde mugakideetako ere. Inkesta egin zitzairen pertsonen inkesta egin aurreko egunean egindako desplazamenduak deskribatzeko eskatu zitzairen; ez bakarrik haiek egindakoak, baita inkestatuaren etxean bizi ziren familia-kideenak ere.
- **2006ko kordoi inkesta.** 2006ko azaroan zehar egin zen. EAE ertzeko kordoi bateko ibilgailu arinen gaineko inkesta egin zen, eta baita Lurralde Historikoen arteko kordoi batekoei buruzkoa ere, kordoi horiek zeharkatzen dituzten ibilgailuen desplazamenduen ezaugarriak kuantifikatu eta zehaztuz.

SHIn, EAEEn bizi direnek ibilgailu pribatuan egindako bidaiak daude xehaturik, hala barnekoak nola kanpora egindakoak. SHIa, EAEtik gertuen dauden gune mugakideetan bizi direnen bidaietara ere zabaldu da, hots, Nafarroa Iparraldea, Kantabriako Ekialdea, Errioxa, Iparraldea eta Burgosko merindadekoek egindako bidaietara.

Kordoi inkestan, automobilari dagokionez, kontuan hartzen dira bai EAEEn bizi direnen bidaiak bai bertan bizi ez direnenak, hala EAErantz doazenak nola EAEtik igarotzen direnak. Informazio iturri bion bitartez, automobil bidezko mugikortasun matrizea osatu da, bai barne bidaiak bai kanpokoak bai igarotzekoak jasotzen dituen.

Automobil bidezko mugikortasun matrizea osatzeko informazioak honako taula honetan du jatorria.

Taula 1. Erabilitako informazio iturriak (A)

SORBURUA	HELBURUA		
	EAE	EAE MUGAKIDEAK	GAINERAKO ESPAINIA/ATZERRIA
EAE	SHI	SHI	KORDOIA
EAE mugakideak	SHI	KORDOIA	KORDOIA
Gainerako Espainia/Atzerria	KORDOIA	KORDOIA	KORDOIA

BARNE ERLAZIOAK
KANPO ERLAZIOAK
IGAROTZAKO ERLAZIOAK

Autoz egindako barne bidaiak SHItik atera dira, SHIkoa kordoi inkestakoa baino informazio osoago, xehatuago eta fidagarriagoa baita. Hala ere, kanpo bidaien zati bati buruzko informazioa eta igarotzako bidaietakoa kordoi inkestatik abiatuta atera da, SHIk ez baititu EAEn bizi ez direnen bidaiak jasotzen.


Behin automobil bidezko mugikortasun matrizea landu ondoren, EAeko errepideetan neurtutako trafiko errealekiko egokitzapena egin da. Egokitzapen hori egiteko, EAeko Garraio Eredua (EHGE) erabili da. EHGEa, garraio orekatuaren sareen simulazioko VISUM¹ softwarearen euskarriaren gainean landu da.

VISUM simulazio paketeak TFlow-Fuzzy modulua dakar. Moduluak, Rinowskik (1996) landutako matrizeak egokitzeko ikuspegia aplikatzen du, zeina multzo barreiatuetarako entropiaren minimizazioan oinarritzen den.

Jarraian datorren planoan, mugikortasun matrizeko emaitzak eta behatutako trafikoak egokitzeko kontuan hartu ditugun neurketa tokiak azaltzen dira.

¹ Lic. PTV Vision. Alemania. 2007

1. mapa: matrizeak egokitzeko neurketa puntuak



Prozesu honetatik ateratako matrize egokitua, hurrengo ataletan azaltzen diren emaitzak lortzeko erabili dena da.

Ikerketa honetan jarraitu dugun metodologia nabarmenki desberdina da ibilgailu arinez dabiltzan bidaiarien garraioa azaltzeko "2001. urteko EAEko Garraio Eskaeraren Azken Irudia" delako dokumentuan eta 2002 eta 2003ko egunerapenetan erabilitako metodologiaren aldean.

2001eko ikerketan, datuak soilik kordoi inkestakoak dira. Inkesta guneen lokalizazioa dela eta, prozesu honetan eskualdea gainditzen duten bidaiak baino ez dira identifikatzen. Hau da, jasotzen diren desplazamenduak hauek dira: eskualde batetik besterakoak, sorburua EAEn eta helburua kanpoan dutenak edo alderantziz, eta igarotzako bidaiak; eskualdeetako barne desplazamenduak, ordea, ez dira identifikatzen.

Inkestek, gainera, eragozpen bat izan zuten, alegia, ezin izan ziren inkestatu beharreko ibilgailuen ausazko estrakzio sistematiko bitartez egin, ertzaintzak parte hartzea ezinezkoa izan zelako. Eragozpen hori gainditu ahal izateko, inkestak egiteko prozesua bidesari-gune eta gasolindegietan borondatezko geldialdia egiten zuten gidariei zuzendu zitzaien, nahiz eta horrek laginaren ordezkagaitasuna mugatzen duen. Kordoi inkestak 2002. urtean egin ziren arren, 2001eko batez besteko mugikortasuna azaltzeko zuzendu ziren.

2002. urtean, EAEko Sorburu Helburu Inkesta (SHI) egin zen, bertan bizi direnen desplazamenduak azaltzen dituena. Inkesta etxez etxe egin zen eta garraio publikoari buruzko neurketekin osatu zen. Lan hark xehetasun handiak eman zituen EAEko barne desplazamenduei buruz, garraio modu guztiei dagokienez.

Iturri bietatik jasotako emaitzen sendotasuna aztertzeko helburuaz, EAE barruko eskualde arteko bidaiak konparatuko dira, eskualde barnekoak ez baitziren kordoi inkestetan neurtu eta kanpokoak eta igarotzakoak ez baitaude SHIn identifikatuta.

Jarraian datorren taulak azaltzen duena da 2002ko kordoi inkestatik (2001eko datuak zuzenduta) ateratako eskualde arteko bidaien eta 2002ko Sorburu-Helburu Inkestatik ateratakoen arteko konparazioa.

Taula 2. 2001eko kordoi inkesten eta 2002ko Sorburu-Helburu inkesten arteko konparazioa. Bidaiariak batez besteko lanegun batean.

	2001eko KORDOI INKESTAK	SHI 2002	DI FERENTZIAK
Araba-Araba	19.485	32.649	13.164
Araba-Bizkaia	11.031	12.950	1.919
Araba-Gipuzkoa	5.172	6.356	1.184
GUZTIRA Araba	35.688	51.955	16.267
Bizkaia-Araba	11.272	12.769	1.497
Bizkaia-Bizkaia	99.740	312.707	212.967
Bizkaia-Gipuzkoa	8.842	15.687	6.845
GUZTIRA Bizkaia	119.854	341.163	221.309
Gipuzkoa-Araba	6.123	5.383	-740
Gipuzkoa-Bizkaia	9.002	14.049	5.047
Gipuzkoa-Gipuzkoa	118.629	192.650	74.021
GUZTIRA Gipuzkoa	133.754	212.082	78.328
GUZTIRA EAE	289.296	605.200	315.904

Iturria: "2001. urteko EAEko garraio eskaeraren azken irudia". Geuk egina.

Oso bana dira prozesu bietako emaitzak. *A priori*, uste izatekoa da kordoi inkesten metodologiak ibilgailu pribatu bidezko eskualde arteko mugikortasuna gutxietsi egiten duela, zeren eta, alde batetik, kordioek ez baitituzte eskualde guztiak erabat ixten, eta bestetik, borondatezko geldialdietan oinarritutako inkestek magnitude eta noranzko ezezaguneko alborapenak ager baitituzakete.

2.1.1 Bidaiarien ibilgailu arineko garraioa

Jarraian aurkeztuko ditugun datuak 2006. urteko etxez etxeko inkestatik eta urte berean egindako errepideko kordoi inkestatik atera dira eta batez besteko lanegun bateko balioei dagozkie.

2.1.1.1 BIDAIARIEN BOLUMENA


EAEn 2006. urtean zehar ibilgailu arinez ibilitako bidaiarien eguneko kopurua 2.520.800ekoa izan zen eta horietatik %65,4 eskualde barneko bidaiak izan ziren. Bidaiarien %88,9k barne desplazamenduak egin zituen EAEen, eta %7,9k, berriz, kanpoko bidaia nazionalak. Nazioarteko kanpo bidaiek (%2,1) eta igarotzakoek (%1,1) ordezkagaitasun txikiagoa dute.

Taula 3. Ibilgailu arineko bidaiariak, desplazamendu motaren arabera. 2006.

		BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIARIAK	% totalekiko	% partzialekiko
EAE barrura	Eskualde barrukoak	1.648.246	65,4%	73,6%
	Eskualde artekoak	591.755	23,5%	26,4%
	Guztira Barnekoak	2.240.001	88,9%	100,0%
EAEtik kanpora (Bertan sortuak)	Nazionalak	198.490	7,9%	78,8%
	Nazioartekoak	53.360	2,1%	21,2%
	Guztira kanpokoak	251.850	10,0%	100,0%
Igarotzan		28.949	1,1%	100,0%
GUZTIRA		2.520.800	100,0%	100,0%

Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina

Grafikoa 1. Ibilgailu arineko bidaiariak, desplazamendu motaren arabera. 2006



Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

2.1.1.2 EUSKAL HERRI BARNEKO BIDAIARIK

2006an, EAE barruan automobileraz egindako desplazamenduen bolumena batez besteko lanegun batean 2.240.001ekoa izan zen.

EAEko barne desplazamenduen artean, %94,0 probintzia barnekoa izan zen. Lurralde Historikoka, Bizkaiak biltzen du probintzian bertan sorburua eta helburua duten desplazamenduak egiten dituzten bidaiarien %50 gutxi

gorabehera, eta ondoren Gipuzkoa dator, non ordazkagaitasuna ia %35ekoa den, eta Araban, berriz, %15,1 guztira.


Taula 4. Eskualde arteko desplazamenduen sorburua, ibilgailu arinez. Batez besteko laneguna. 2006

S/H	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Araba	298.617	24.205	12.103	334.925
Bizkaia	25.964	1.073.255	29.677	1.128.896
Gipuzkoa	13.337	28.869	733.974	776.180
GUZTIRA	337.918	1.126.329	775.754	2.240.001
Araba	13,3%	1,1%	0,5%	14,9%
Bizkaia	1,2%	47,9%	1,3%	50,4%
Gipuzkoa	0,6%	1,3%	32,8%	34,7%
GUZTIRA	15,1%	50,3%	34,6%	100,0%

Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

EAE barneko desplazamenduei dagokienez, ikusten da batez besteko lanegun batean egiten diren bidaien %47,8k lana duela xede, eta gero datoz gestio pertsonalak (%16,1) eta aisialdia (%12,3).

Grafikoa 2. Ibilgailu arinez eginiko EAE barneko desplazamenduak, xedearen arabera. Batez besteko laneguna. 2006



Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi inkesta. Geuk egina.

2.1.1.3 KANPO BIDAIA NAZIONALAK

Gainerako Espainiarekin trukaturako bidaiak, batez besteko lanegun batean eta ibilgailu arinez eginak, 198.490 dira, hau da, EAEn %7,9 guztira.

Halako trukatzeko gehienak probintzia mugakideek biltzen dituzte, bidaia nazionalen artean 4tik hiru biltzen baitute. Zehazkiago, Kantabriak desplazamendu horien %34,5 biltzen du (68.508), eta jarraian dator Burgos, guztira 53.657 bidaiarirekin, eta azkenik Nafarroa, %14,0rekin (27.720).

Hala, desplazamendu nazionalak ordezkatutasun handiagoa izaten jarraitzen dute probintzia artekoen aldean, eta hori gertatzen da erlazio estua dagoelako probintzia mugakideekin. Probintzia horiek, fluxuok artikulatzeko aukera ematen duen bide sare indartsu baten onuradunak dira.


Bidaia nazional gehien egiten den probintzia Bizkaia da, %55,2rekin; ondoren datoz Araba, %33,6rekin, eta Gipuzkoa, gainerako %11,2 biltzen duena.

Taula 5. Kanpo bidaia nazionalak ibilgailu arinez. Batez besteko laneguna. 2006

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE GUZTIRA
Nafarroa	9.039	4.947	13.734	27.720
Kantabria	583	65.865	2.060	68.508
Asturias	205	3.351	373	3.929
Burgos	31.448	21.483	726	53.657
Goi lautada eta Galizia	18.509	909	1.123	20.541
Errioxa	3.220	3.400	544	7.164
Madril	763	5.459	2.519	8.741
Ebro ibarra	401	971	387	1.759
Levante	2.343	2.661	520	5.524
Gainerako Espainia	211	556	180	947
GUZTIRA	66.722	109.602	22.166	198.490

EAEn sortu eta gainerako Autonomia Erkidegoak helburu dituzten desplazamenduei dagokienez, %37,9k lana du xede, eta ondoren datoz gestio pertsonalak, %14,7rekin, eta aisialdia, %14,4rekin.

Grafikoa 3. Ibilgailu arinez egindako desplazamendu nazionalak, xedearen arabera. Batez besteko laneguna. 2006.



Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

2.1.1.4 NAZIOARTEKO KANPO BIDAIK

Nazioarteko kanpo bidaiak 53.360 izan ziren, hau da, EAEn automobileraz egindako bidaia guztien %2,1.

Nazioarteko desplazamenduen %96,0 Frantziarekin egin zen, %0,6 Portugalekin eta gainerako %3,4 Europako gainerako herrialdeekin.


Taula 6. Nazioarteko kanpo bidaiak ibilgailu arinez. Batez besteko laneguna. 2006.

HERRIALDEA	EAE
Portugal	322
Frantzia	51.231
Gainerako Europa	1.807
GUZTIRA	53.360

Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

EAEn sortutako eta nazioartea helburu duten desplazamenduen xede nagusia aisialdia da (%28,1), eta gero datoz lana (%25,2) eta gestio pertsonalak (%11,1).

Grafikoa 4. Ibilgailu arinez egindako nazioarteko kanpo bidaiak, xedearen arabera. Batez besteko laneguna. 2006.



Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

2.1.1.5 IGAROTZAK

2006. urtean batez besteko lanegun batean automobiler egindako igarotza bidaien kopurua 28.949koa izan zen. Daukaten bolumena dela-eta, aipagarria da Frantziaren eta Nafarroaren arteko erlazioa, eta baita Kantauri itsasoko ertzaren eta Frantziaren artekoa ere.


Taula 7. Igarotzako bidaiak ibilgailu arinez. Batez besteko laneguna. 2006.

SORBURUA/HELBURUA	ESPAINIA						FRANTZIA	PORTUGAL	BESTE EU	GUZTIRA	
	NAFARROA	KANTAUARI ERTZA	EBROKO IBARRA	LEVANTE	GOI-LAUT. GALIZIA	GAINERAKO ESPAINIA					
ESPAINIA	18	418	31	7	1.406	59	2.609	62	377	4.987	
	NAFARROA	431	1	807	58	358	35	1.175		157	3.022
	KANTAUARI ERTZA	31	798			201		1.447		0	2.477
	EBROKO IBARRA	7	58					1.046		501	1.612
	LEVANTE	1.478	357	208				1.625		371	4.039
	GOI LAUTADA + GALIZIA	62	35					215		152	464
	GAINERAKO ESPAINIA	2.638	1.337	1.275	1.067	1.557	206	0	845	0	8.925
FRANTZIA		65						943		447	1.455
PORTUGAL		398	192	0	530	335	130	0	383	0	1.968
EUROPAKO BESTE BATZUK		5.128	3.196	2.321	1.662	3.857	430	9.060	1.290	2.005	28.949
GUZTIRA											

Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

Xedeei dagokionez, motibo profesionalak direla-eta egindako bidaiak dira nagusi, %29,3rekin, eta jarraian datoz aisialdiari zor zaizkionak, %27,0.

Grafikoa 5. Ibilgailu arinez egindako igarotzako bidaiak, xedearen arabera. Batez besteko laneguna. 2006.



Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoia Inkesta. Geuk egina.

2.1.1.6 BATEZ BESTEKO ABIDADURA

“Ibilgailu flotatzailearen” teknikaren bidez, EAEko errepideetako batez besteko zirkulazio abiadurak neurtu dira. Metodo horren bidez ateratako emaitzak Foru Aldundiek argitaratutako abiadurei buruzko informazioarekin kontrastatu dira.

EAEko errepideetako batez besteko zirkulazio abiadura 78,2 km/h da eta balio horrek 103,4 km/h-raino egiten du gora ahalmen handiko bideetan (autopistak eta autobiak) eta 65,2 km/h-ra jaisten da noranzko biko errepide konbentzionaletan.

Abiadurarik handienak Gipuzkoako Lurralde Historikoan neurtu dira eta txikienak, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Taula 8. Batez besteko abiadura (Km/h) bidearen tipologiaren arabera EAEn. 2006.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Autopistak eta autobiak	115,2	92,1	102,1	103,4
Noranzko biko errepideak	61,3	68,0	70,1	65,2
BIDEKOA, GUZTIRA	77,2	76,5	79,5	78,2

Iturria: Geuk egina.

2.1.2 Bidaiarien autobuseko garraioa

Atal honetan jaso ditugu 2006. urteko autobus zerbitzu eskaerari buruzko datuak. Atal hau osatzeko kontuan hartu dira operadore gehienetatik jasotako datuak eta mugikortasunari buruzko etxez etxeko inkesta.

2.1.2.1 HIRIARTEKO BIDAIARIEN URTEKO BOLUMENA

2006. urtean, autobus erabiltzaileen eguneko kopurua 375.530 zen. Nagusiki, EAEko barne ibilbideak ziren. Kanpora egindakoak, berriz, oso gutxi izan ziren: %5etik behera.

Taula 9. Autobuseko bidaiariak desplazamenduaren tipologiaren arabera. 2006

MOTA	BIDAIARIAK BATEZ BESTEKO LANEGUNA	%
EAE barnera	359.199	95,7
EAEtik kanpora	16.331	4,3
GUZTIRA	375.530	100,0

Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

2.1.2.2 EAE BARNERA EGINDAKO BIDAIAK. HIRIARTEKOAK

EAE barnean autobusez eginiko desplazamenduen banaketak agerian jartzen du probintzia barnekoek daukaten garrantzia. 2006an, autobusez eginiko desplazamenduen %93 probintzia barruan egin ziren, hau da, termino absolutuetan, 333.904 erabiltzaile batez besteko lanegun batean. Gainerako eguneko 25.295 desplazamenduak, berriz, hiru Lurralde Historikoen artean gertatu ziren. Bestalde, aipagarria da garraio diskrezionalaren presentzia erlatibo handia probintzia barneko loturetan, batez ere Araban eta Gipuzkoan.

Taula 10. Autobusez egindako barne desplazamenduen Sorbura-Helburua. Batez besteko laneguna. 2006

Bidaiak guztira

S/H	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Araba	19.952	8.006	1.214	29.172
Bizkaia	6.782	183.534	3.583	193.899
Gipuzkoa	1.335	4.375	130.418	136.128
GUZTIRA	28.069	195.915	135.215	359.199

Zerbitzu Erregularreko Bidaiak

S/H	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Araba	1.192	4.119	1.214	6.525
Bizkaia	3.370	124.641	1.813	129.824
Gipuzkoa	756	2.338	46.535	49.629
GUZTIRA	5.318	131.098	49.562	185.978

Zerbitzu Diskrezionaletako Bidaiak

S/H	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Araba	18.760	3.887	0	22.647
Bizkaia	3.412	58.893	1770	64.075
Gipuzkoa	579	2.037	83.883	86.499
GUZTIRA	22.751	64.817	85.653	173.221

Iturria: Etxez etxeko inkesta eta Kordoi Inkesta. Geuk egina.

2.1.2.3 BIDAIARIEN HIRI GARRAIOA AUTOBUSEZ

Txosten honetan soilik hiru euskal hiriburuetako hiriko zerbitzuak aztertu dira, nahiz eta badiren beste herri batzuk halako zerbitzua daukatenak. Hiriburu bakoitzari buruzko datuak dagokion operadoreak eman dizkigu, Gasteizi buruzkoak izan ezik, horiek 2006ko Mugikortasunari buruzko inkestatik atera baititugu:

Taula 11. Hiri autobusez egindako desplazamenduak hiru hiriburuetan. 2006

	URTEKO BIDAIARIAK	BIDAIARIAK BATEZ BESTEKO LANEGUNA
Gasteiz	11.395.248	39.293
Bilbo	27.264.583	94.016
Donostia	26.670.005	91.965
GUZTIRA	65.329.836	225.274

Iturria: Bilbobus, Dbus eta Gasteizerako etxez etxeko mugikortasun inkesta. Geuk egina.

2.1.3 Bidaiarien errepideko garraioaren laburpena

EAEn, batez besteko lanegun bateko errepideko desplazamenduen kopurua, ibilgailu arinak eta autobusak kontuan hartuta, 3.121.604 da. %90,5 barne bidaiak dira; %8,6, berriz, kanpo bidaiak, eta gainerako %0,9, igarotzako bidaiak.

Taula 12. Errepideko garraioko bidaiariak. Batez besteko laneguna. 2006

MOTA	IBILG. ARINA	HIRIARTEKO AUTOBUSA	HIRIKO AUTOBUSA	GUZTIRA
Barnekoak	2.240.001	359.199	225.274	2.824.474
Kanpokoak	251.850	16.331		268.181
Igarotzan	28.949			28.949
GUZTIRA	2.520.800	375.530	225.274	3.121.604

Iturria: Mugikortasunari buruzko etxez etxeko inkesta. Geuk egina.

Automobilak hartzen duen kuota handia da, izan ere, autoa baita errepideko bidaiarien %80,7k erabiltzen duen garraio modua. Autobusak barne bidaietan dauka presentziarik handiena: %20,7.

Taula 13. Errepideko garraio eskaeraren banaketa. 2006

BIDAIAK	IBILG. ARINA %	AUTOBUSA %	GUZTIRA %
Barnekoak	79,3	20,7	100,0
Kanpokoak	93,9	6,1	100,0
Igarotzan	100,0	0,0	100,0
GUZTIRA	80,7	19,3	100,0

Iturria: Mugikortasunari buruzko etxez etxeko inkesta. Geuk egina.

2.2 Aireko garraioa

Atal hau osatzeko datuak Aenak eman dizkigu, eta datuotan azaltzen da bidaiarien bolumena bai irteera bai iritsierako hegaldietan.

2.2.1 Bidaiarien urteko mugimendua

Bidaiarien urteko mugimenduari dagokionez, alde nabarmenak daude hiru aireportuen artean. Trafiko mota zein den, alde horren tamaina, gainera, desberdina da. Loiuk protagonismorik handiena bereganatzen du trafiko mota guztietan, batez ere nazioarteko trafikoan.


Taula 14. Euskal aireportuetako urteko bidaiari trafikoa. 2006

TRAFIKOA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA
	BIDAIARIAK	%	BIDAIARIAK	%	BIDAIARIAK	%	BIDAIARIAK
Etxekoa	59.837	2,4	2.159.845	87,2	256.820	10,4	2.476.502
Nazioartekoa	71.298	8,4	781.607	91,6	496	0,1	853.401
GUZTIRA	131.135	3,9	2.941.452	88,4	257.316	7,7	3.329.903

Iturria: Aena. Geuk egina

Grafikoa 6. Bidaiariak EAEn, aireportuaren arabera. 2006


GUZTIRA




2006. urtean 3.329.903 bidaiari erregistratu ziren euskal aireportuetan. Loiu horien guztien %88,4 bildu zuen. Hondarribiak eta Forondak presentzia txikiagoa izan zuten, %7,7 eta %3,9 hurrenez hurren.

4tik 3tan, bidaiariak etxeko hegaldiei dagozkie, eta 4tik behin, berriz, nazioarteko hegaldiei.

NAZIONALA



NAZIOARTEKOA



Iturria: Aena. Geuk egina

2.2.2 Bidaiarien eguneko mugimendua

2006. urtean, bidaiarien eguneko mugimendua 9.122ra iritsi zen EAEko hiru aireportuetan.

Taula 15. Bidaiarien trafikoa euskal aireportuetan. Batez besteko laneguna. 2006.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Etxekoa	164	5.917	704	6.785
Nazioartekoa	195	2.141	1	2.337
GUZTIRA	359	8.058	705	9.122

Iturria: Aena. Geuk egina

2.2.3 Bidaien sorburua eta helburua

Bidaiarien sorburu/helburuari dagokionez, %74,3 Espainiari dagokio; %15,5, berriz, Schengengo² akordioa sinatu zuten Europar Batasuneko herrialdeei, eta %9,1 Schengen osatzen ez duten Europako herrialdeei. %1,1, azkenik, gainerako herrialdeetako da.

Taula 16. Bidaiari trafikoa EAEko aireportuetan Sorburu/Helburuaren arabera. Batez besteko laneguna. 2006

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
NAZIONALA		164	5.917	704	6.785
NAZIOARTEKOA ²	EB Schengen	3	1.412	1	1.416
	EB, Schengen ez dena	184	605		790
	EUROPA EB, ez dena	2	31		32
	Nazioarteko gainerakoak	6	93		99
	Guztira Nazioartekoak	195	2.141	1	2.337
GUZTIRA OROKORRA		359	8.058	705	9.122


Iturria: Aena. Geuk egina

² EB Schengen herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Italia, Luxenburgo, Portugal eta Suedia.

Schengen herrialdeak, EB ez direnak: Islandia, Norvegia.

EB herrialdeak, Schengen ez direnak: Zipre, Eslovenia, Eslovakia, Estonia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak.

Grafikoa 7. Bidaiarien nazioarteko trafikoa EAEko aireportuetan Sorburuen/Helburuen arabera. Batez besteko laneguna. 2006



Iturria: Aena. Geuk egina

2.2.4 Bidaiarien aireko trafikoaren ezaugarriak

Bidaiatzeko motiboari, aireportura iristeko garraio moduari, eta bidaiarien jatorrizko probintzia eta udalerritari, eta beste aireportu batzuekiko bidaiari trafikoari buruzko datuak hemendik atera dira: "EMMA³ Jarraipen Txostena. Bidaiariaren ezaugarriak eta jokaera. 2004ko azaroko aste estandarra Bilboko aireportuan" eta "Inkestean emaitzei buruzko txostena. 2003. urtea. Urriko aste estandarra Donostian" txostenetatik. Biak ere AENAK egin zituen. Erakunde horrek ez du halako ikerketarik egin Forondako aireportuaren gainean.


2.2.4.1 BIDAIATZEKO MOTIBOAK

Loiuko erabiltzaileen artean, bidaiatzeko motibo nagusia negozioak egitea da (%55), eta horren ondoren datoz oporrak (%27) eta maila apalago batean motibo pertsonalak (%18). Banaketa hori, hein batean, datu bilketa egin zeneko urte sasoiak baldintzatu zuen, izan ere, bilketa azaroan egin zen, eta hori dela-eta, oporregatik bidaien ordezkagaitasuna txikiagoa da urteko beste sasoi batzuekin alderatuz gero.

³ EMMA: Estudio de Movilidad en Modo Aéreo.

Hondarribiko aireportuari dagokionez, Loiun gertatzen den bezala, erabiltzeko motibo nagusia negozioak egitea da (%67,1), eta gero datoz oporrak (%25,7) eta, azkenik, motibo pertsonalak (%7,2), Loiun erregistratutako %18aren oso azpitik. Egoera horren zergatia Hondarribiko aireportuak daukan hegaldi eskaintza txikian egon daiteke, horrek txartelen prezioa igotzea dakar eta. Horiek hala, erabiltzaile potentzialek bestelako garraiobide batzuk hautatzen dituzte desplazamendu pertsonalak egiteko.

Grafikoa 8. Bidaiariak, bidaiatzeko motiboaren arabera. Loiu (2004) eta Hondarribia (2003).




Iturria: Aena. Geuk egina.

2.2.4.2 AIREPORTUETARA IRISTEKO MODUAK

Automobila dugu bidaiari gehienek aireportura iristeko erabiltzen duten garraiobide nagusia, ibilgailu pribatua izan, alokatua izan. Bigarren lekuan taxia dago eta autobusak ez du inongo kasutan erabileraren %7 gaintzen. Ildo horretan, aipatu beharra dago Hondarribiko⁴ aireportuan daukan presentzia txikia, erabileraren %1era baino ez baita iristen. Loiuako aireportuan, berriz, zifra hori %7raino igotzen da.

⁴ Hondarribiko aireportura iristeari buruzko datuak 2003. urteari dagozkio. 2006tik aurrera, Donostiatik aireporturainoko zuzeneko autobus zerbitzu bat dago martxan, eta horrek, aipatutako portzentajea aldatu egingo zuen, jakina.

Grafikoa 9. Aireportura iristeko modua. Loiu 2004. Hondarribia 2003




Iturria: Aena. Geuk egina.

2.2.4.3 BIDAIARIAK ZEIN PROBINTZIATATIK DATOZEN


Loiuko aireportua erabiltzen duten bidaiari gehienak Bizkaitik datoz. Dena den, azpiegitura horrek probintziaz gaindiko eginkizun garrantzitsua betetzen du, 4 bidaiaririk bat beste probintzia batzuetatik baitator, nagusiki mugakide diren probintzietatik. Bidaiarien %16,2 EAEko gainerako probintzietatik dator (Gipuzkoatik %12 eta Arabatik %4,2), eta %4,9 Kantabrietatik. Azkenik, aipatzekoa da urrunago dauden beste probintzia batzuetako bidaiariak ere erakartzen dituela Loiu, hala nola Nafarroakoak (%2,1), Errioxakoak (%1,4) edo Asturiaskoak (%0,4). Datu horiekin, baieztatu dezakegu Loiu dugula erreferentziarako aireportua bidaiari bolumenari dagokionez Espainiako ipar-erdialdeko gunean, Santiago eta Santanderren aurretik.

Grafikoa 10. Loiutik irteten diren bidaiariak, zein probintzietatik datozen kontuan hartuta. 2004



Iturria: Aena. Geuk egina

Grafikoa 11. Hondarribiko aireportutik irteten diren bidaiariak, zein probintziatik datozen kontuan hartuta. 2003




Iturria: Aena. Geuk egina.

Loiukoari kontrajarrita, Hondarribiko aireportua probintziari zuzenduta dago batez ere, bidaiarien %89,7 Gipuzkoatik baitator. Hondarribiko aireportuak gainerako lurraldeetako bidaiariak erakartzeko ahalmen txikia du, lurralde horiek mugakideak izan arren, frantziar erabiltzaileak salbuetsita, %9,9 baitira. "Beste batzuk" epigrafeak Kantabriatik eta Nafarroatik datozen bidaiariak biltzen ditu eta horien presentzia ia anekdotikoa da, hots, %0,4; horien artean, %0,3 kantabriar bidaiariak dira eta gainerako %0,1, berriz, nafarrak.

BIDAIARIAK ZEIN UDALERRITATIK DATOZEN NAGUSIKI

Loiuko aireportutik irteten diren bidaiarien artean, normala denez, Bilbok biltzen du portzentajerik handiena, ia %41ekin, eta ondoren datoz Bilbo Handi inguruko herriak, hala nola Getxo eta Barakaldo, bidaiarien %10,2rekin. Azkenik, aipatzekoa da EAEko gainerako hiriburuetatik datozen bidaiarien kopurua, izan ere, bidaiarien %5,3 Donostiatik dator eta %3,5, berriz, Gasteiztik.


Grafikoa 12. Loitutik irteten diren bidaiariak nondik datozen. 2004



Iturria: Aena. Geuk egina.

Hondarribiko aireportuari dagokionez, ikusten da bidaiari gehienak hiriburutik datozela; aipatzekoak dira, halaber, Bidasoa Beheko eskualdetik datozenak (%17,5). "Gainerako udalerriak" epigrafean, Iparraldetik datorren %9 sartzen da.


Grafikoa 13. Hondarribiko aireportutik irteten diren bidaiariak nondik datozen. 2003



Iturria: Aena. Geuk egina.

Portzentajeen lekuan batez besteko eguneko bidaiari kopurua jarriz gero, agerian geratzen da Bilboko aireportuak Gipuzkoako probintziako bidaiariak erakartzeko duen gaitasuna. Izan ere, 271 gipuzkoar bidaiari erakartzen du, Hondarribiko aireportua erabiltzen dutenen (126) bikoitza. Gainera, Donostiako bidaiariei dagokienez, aireportu bata ala bestea erabiltzen dutenen kopuruen arteko aldea ere txikia da, izan ere, Hondarribitik gipuzkoar hiriburutik datozen 265 bidaiari irteten da, eta Loiotik, berriz, 216.

Grafikoa 14. Hondarribitik (2003) eta Loiotik (2004) irteten diren bidaiariak zein udalerritakoak diren. Absolutuak




Iturria: Aena. Geuk egina.

BESTE AIREPORTU BATZUETARAKO BIDAIARI TRAFIKOA

Loiotik beste aireportu batzuetarako hegaldien artean, bidaiarien portzentajeei dagokienez, Madrilek %24,8 biltzen du, Bartzelonak %13,9 eta Londresko hiru aireportuen artean, %10,8. Aipatu beharra dago helburuetan sakabanatze handia dagoela, eta horren eraginez, "beste batzuk" epigrafe pean daudenak %19,3ra iristen dira.


Grafikoa 15. Loitik beste aireportu batzuetarako bidaiari trafikoa. 2004



Iturria: Aena. Geuk egina.

Hondarribiko aireportuari dagokionez, 2003an hegaldi komertzial guzti-guztiek Madril eta Bartzelona zuten helburu, bidaiarien %72,2 eta 27,4rekin, hurrenez hurren.

Grafikoa 16. Hondarribitik beste aireportu batzuetarako bidaiari trafikoa. 2003



Iturria: Aena. Geuk egina.

2.3 Trenbideko garraioa

EAEn badira bost trenbide operadore, bidaiariei zerbitzua eskaintzen dietenak: Euskotren, RENFE, FEVE, Euskotran eta Bilboko Metroa.

Lehenengo hirurek eskualde arteko zerbitzua ematen dute; gainerako biek, berriz, eskualde barneko lotura gehiago eskaintzen dute.

2.3.1 Euskotren

Euskotrenen zerbitzu eskaintza hiru oinarrizko ibilbidetan egituratua dago:

- Bilbo-Bermeo
- Deustu-Lezama
- Bilbo-Hendaia

Hiru ibilbide horietatik abiatuta, 11 linea osatzen dira. Linea batzuek ibilbide osoa egiten dute, eta beste batzuek, berriz, zati batzuetan baino ez dute zerbitzua eskaintzen.

2.3.1.1 BIDAIARIEN URTEKO MUGIMENDUA


2006an, Euskotrenek 17.960.026 bidaiari erregistratu zuen guztira.

Taula 17. Urteko bidaiariak eta batez besteko lanegun batekoak Euskotreneko lineetan. 2006

LINEAK	URTEKO BIDAIARIAK	BIDAIARIAK BATEZ BESTEKO LANEGUNEAN
Deustu-Lezama	2.151.817	7.420
Bilbo-Amorebieta	2.386.066	8.228
Zornotza-Durango	499.857	1.724
Zornotza-Bermeo	1.094.490	3.774
Durango-Ermua	927.721	3.199
Ermua-Eibar	1.336.175	4.607
Eibar-Zumaia	718.736	2.478
Zumaia-Donostia	1.985.636	6.847
Lasarte-Donostia	1.180.692	4.071
Donostia-Hendaia	5.640.324	19.449
Azpeitia-Lasao	38.512	133
GUZTIRA	17.960.026	61.931

Iturria: Euskotren. Geuk egina

Grafikoa 17. Euskotreneko lineetako bidaiariak. Batez besteko laneguna. 2006



Iturria: Euskotren. Geuk egina

BIDAIA MOTAK


2006an, batez besteko lanegun bateko Euskotreneko bidaiari kopurua 61.931ra iritsi zen. Desplazamendu horien %46,6 eskualde barneko bidaiak izan ziren, eta 3tik bat, probintzia barnekoak. Udalerri barneko desplazamenduak %11,3 izan ziren. Azkenik, lurralde artekoak eta kanpokoak %5,6 eta %2,8 izan ziren hurrenez hurren.

Taula 18. Euskotreneko bidaiariak desplazamenduaren tipologiaren arabera. Batez besteko laneguna. 2006

DESPLAZAMENDU MOTA	BIDAIARIAK BATEZ BESTEKO LANEG.
Udalerri barnekoa	7.021
Eskualde barnekoa	28.900
Probintzia barnekoa	20.811
Lurralde artekoa	3.447
EAE barnekoak guztira	60.179
Kanpokoak - Hendaia	1.752
GUZTIRA OROKORREAN	61.931

Iturria: Euskotren eta etxez etxeko inkesta. Geuk egina.

Grafikoa 18. Euskotreneko bidaiariak desplazamenduaren tipologiaren arabera. 2006



Iturria: Euskotren. Geuk egina.

2.3.1.2 BIDAIEN SORBURUA ETA HELBURUA

2006. urtean Euskotreneko bidaiarien %97,2k EAE barruan egin zituen desplazamenduak, eta soilik gainerako %2,8 izan ziren nazioarteko desplazamenduak, horien sorburua edo helburua Hendaia izaki. Gipuzkoako probintzia barruko desplazamenduak bereziki esanguratsuak dira, guztira %54,1 baitira.

Taula 19. Euskotreneko bidaiarien probintziako sorburu-helburu matrizea. Batez besteko laneguna. 2006.

	BIZKAIA	GIPUZKOA	KANPORA	GUZTIRA OROK.
Bizkaia	23.326	1.658	0	24.984
Gipuzkoa	1.789	33.406	847	36.042
Kanpora	0	905	0	905
GUZTIRA OROKOR.	25.115	35.969	847	61.931

Iturria: Euskotren. Geuk egina.

2.3.2 Renfe Aldiriak

RENFEK eskainitako datuak 2005. urteari buruzkoak dira, aldirietako lineetariko bakoitzari dagozkionak, sorburu eta helburu matrizeak banandu barik.

RENFEK badu aldirietako hiru lineako zerbitzu bat Bizkaiko lurraldean eta beste bat Gipuzkoan.

- C-1: Bilbo - Santurtzi
- C-2: Bilbo – Muskiz
- C-3: Bilbo – Urduña
- C-1: Brinkola - Irun


2005ean 29.309.000 bidaiarik erabili zuen aldirietako linea, hau da, batez besteko lanegun batean 101.066 bidaiari. Erabiltzaile gehien biltzen duen linea Bilbo-Santurtzi dugu (%33,5). Bilbo-Muskiz linea, ordea, bidaiari fluxu txikiena duen linea da: 14.931 (%14,8).

Taula 20. RENFEko urteko bidaiariak eta batez besteko lanegun batekoak. 2005

LINEA	URTEKO BIDAIRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIRIAK
C-1: Bilbo – Santurtzi	9.817.000	33.852
C-2: Bilbo – Muskiz	4.330.000	14.931
C-3: Bilbo - Urduña	7.242.000	24.972
Guztira Bilbo Aldiriak	21.389.000	73.755
C-1: Irun – Brinkola	7.920.000	27.310
TOTAL CERCANÍAS	29.309.000	101.065

Iturria: Renfe. Geuk egina.

Grafikoa 19. RENFEren aldirietako zerbitzu lineako bidaiariak. 2005



Iturria: Renfe. Geuk egina.

2.3.3 Renfe Eskualdekoak

Eskualde trenetako bidaiari mugimenduari buruz RENFEk eskainitako datuak 2005. urteari dagozkio eta bidaiarien sorburua hartzen dute kontuan. 2005. urtean, eskualde trenetako bidaiari kopurua 406.500ekoa izan zen Euskadin, hau da, eguneko 1.402 bidaiari.

Desplazamenduen sorburuari dagokionez, 4tik 3k Araba du sorburu, eta gainerakoa Gipuzkoak biltzen du, Bizkaian ez baitago halako zerbitzurik.

Taula 21. Urteko bidaiariak eta batez besteko lanegun batekoak, RENFEko eskualde trenetako zerbitzuan erregistratutako sorburuaren arabera. 2005.

SORBURUA	URTEKO BIDAIARIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIARIAK	%
Araba	303.143	1.046	74,6
Bizkaia	-		
Gipuzkoa	103.357	356	25,4
GUZTIRA EAE	406.500	1.402	100,0

Iturria: Renfe. Geuk egina.

2.3.4 Renfe Ibilbide luzeak

Aurreko ataletan bezala, ibilbide luzeko trenetako bidaiari mugimenduari buruz RENFEk eskaintako datuak 2005. urteari dagozkio eta EAEn dute sorburua.

2005. urtean, RENFEko linea luzeetako zerbitzuak 727.852 bidaiari erregistratu zituen guztira, hau da, 2.510 bidaiari batez besteko laneguneko.

Desplazamendu horietako gehienen sorburua Gipuzkoa da, erdia baino gehiago biltzen baitu (%54,3); %29,8 Bizkaiari dagokio eta gainerako %15,9 Arabari.

Taula 22. Urteko bidaiariak eta batez besteko lanegun batekoak RENFEko ibilbide luzeko tren zerbitzuan erregistratutako sorburuaren arabera. 2005

SORBURUA	URTEKO BIDAIARIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIARIAK	%
Araba	115.709	399	15,9
Bizkaia	216.573	747	29,8
Gipuzkoa	395.570	1.364	54,3
GUZTIRA EAE	727.852	2.510	100,0

Iturria: Renfe. Geuk egina.

2.3.5 Feve

EAEn, FEVEren eskaintza honako linea hauetako zerbitzuetan biltzen da:

- Bilbo – Balmaseda
- Bilbo – Santander

Geldialdien banaketak aukera ematen du lurraldean tokiko, eskualdeko eta probintzia arteko desplazamenduak egiteko. FEVEren trenbide zerbitzuen eskaintza, EAERI dagokionez, Bizkaiari mugatua dago bakar-bakarrik.

2.3.5.1 BIDAIARIEN URTEKO MUGIMENDUA

2006an FEVEko linea bietan zenbatutako bidaiariak -Kantabrian probintzia barneko desplazamenduak egin zituztenak kontuan hartuta- 1.777.860 izan ziren, hau da, aurreko ekitaldian baino pixka bat gutxiago. Hori gertatu da, hein batean, 2006an Bizkaibusek Bilbo-Balmaseda linea jarri zuelako martxan, halako ordutegi aukerarekin non FEVEk bidaiari gutxiago erakarri baitzuen.

Ia bidaiari guztiak Bilbo-Balmaseda linean biltzen dira (%93,9); Bilbo-Santander lineak, berriz, soilik gainerako %6,1 biltzen du. Hala, batez besteko lanegun bateko bidaiari kopurua 6.130 da.

Taula 23. Urteko bidaiariak lineaka FEVEko trenetan. 2006.

LINEA	URTEKO BIDAIARIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIARIAK	%
Bilbo-Santander ⁵	64.644	375	6,1
Bilbo-Balmaseda	1.668.900	5.755	93,9
GUZTIRA	1.733.544	6.130	100,0

Iturria: Feve. Geuk egina.

2.3.5.2 BIDAIA MOTAK

Desplazamendu motari dagokionez, aipatu beharra dago Bizkaiko eskualde artekoak direla nagusi: eguneko 3.774 bidaiari 2006an. 3 desplazamendutatik 1, berriz, eskualde barnekoa da.


⁵ Soilik sorburua edo helburua EAEn duten bidaiariak

Taula 24. Urteko bidaiariak eta batez besteko lanegun batekoak, desplazamenduaren tipologiaren arabera FEVEko trenetan. 2006

MOTA	URTEKO BIDAIARIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIARIAK	%
Eskualde barnekoak	604.796	2.085	34,9
Eskualde artekoak	1.094.397	3.774	63,1
EAE barnekoa	1.699.193	5.859	98,0
EAEtik kanpo	34.351	118	2,0
GUZTIRA	1.733.544	5.977	100,0

Iturria: Feve. Geuk egina.

Grafikoa 20. FEVEko trenetako bidaiariak, desplazamendu tipologiaren arabera. 2006



Iturria: FEVE. Geuk egina.

2.3.6 Euskotran

Bilboko Tranbia zerbitzua hiriko zerbitzua da; hori dela eta, lotura guztiak Bizkaiko hiriburuan gertatzen dira. Zerbitzu hori hazten ari da urtetik urterako aldi guztietan. 2006an, bidaiari kopurua 2.935.485koa izan zen. 2002an zerbitzua eskaintzen hasi zenetik, urteko erregistrorik handiena izan da.

Taula 25. Urteko bidaiariak batez besteko lanegun batean Bilboko Tranbian. 2006

BIDAIA MOTA	URTEKO BIDAIRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIRIAK	%
GUZTIRA	2.935.485	10.122	100,0

Iturria: Operadorearen datuak

2.3.7 Bilboko Metroa

2006an metroa erabili zutenen kopurua 79.313.750ekoa izan zen, hau da, batez besteko lanegun bakoitzeko 273.496 bidaiari batez beste.


Geltoki bakoitzari buruz operadoreak emandako datuetatik abiatuz, bidaien tipologia zehazten saiatu gara. Sarearen konfigurazioa dela eta, egiten diren ia desplazamendu guztiak eskualde barnekoak dira (%96,2). Eskualde artekoak, berriz, gutxi dira: %3,8.

Taula 26. Urteko bidaiariak eta batez besteko lanegun batekoak, desplazamendu tipologiaren arabera Bilboko Metroan. 2006

BIDAIA MOTA	URTEKO BIDAIRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO BIDAIRIAK	%
Eskualde barnekoak	76.334.005	263.221	96,2
Eskualde artekoak	2.979.745	10.275	3,8
EAE barnean	79.313.750	273.496	100.0

Iturria: Bilboko Metroa. Geuk egina.


Grafikoa 21. Bilboko metroko bidaiariak tipologiaren arabera. 2006



Iturria: Bilboko Metroa. Geuk egina.

Jarraian, Metro geltoki nagusiei buruzko datuak eskainiko ditugu, geltoki horietako bakoitzean batez besteko lanegun batean erregistratutako bidaiari mugimenduaren arabera.

Grafikoa 22. Bidaiariak Bilboko Metroko geltoki nagusietan. Batez besteko laneguna. 2006



Iturria: Bilboko Metroa. Geuk egina.

2.3.8 Trenbide eskaerari buruzko laburpena

2006. urteari buruz operadoreek emandako datuak ikusita -RENFEkoak salbuetsita, datuok 2005ari baitagozkio- batez besteko lanegun bateko bidaiari kopurua 456.504 izan dela jo daiteke. Beraz, garraio modu hau urteko 132,3 milioi desplazamenduren protagonista dugu EAE osoan.

Jakina, trenbide operadoreetan egindako ia desplazamendu guztiak (%98,9) EAE barnekoak dira. EAE barneko eta kanpoko erlazioei dagokienez, aipatu beharra dago RENFE dela bidaiarien zatirik handiena biltzen duena. Euskotrenek presentzia txikiagoa du, Donostia-Hendaia linea dela-eta; eta gauza bera gertatzen da FEVErekin ere, Bilbo-Santander lineatik abiatuta Bizkaia eta Kantabria arteko desplazamenduak egiten dituzten erabiltzaileak direla eta.

Taula 27. Bidaiariak, trenbideko desplazamendu tipologiaren arabera. Batez besteko laneguna. 2006

BIDAIAK	EUSKOTREN	RENFE*			FEVE	TRANBIA	METROA	GUZTIRA
		ALD.	ESK.	IBIL. L.				
Barnekoak	60.179	101.066	778	70	5.859	10.122	273.496	451.570
Kanpokoak	1.752	0	624	2.440	118		0	4.934
GUZTIRA	61.931	101.066	1.402	2.510	5.977	10.122	273.496	456.504

Iturria: Operadoreek emandako datuak. Geuk egina.


* 2005ari buruzko datuak

2.3.8.1 OPERADORE ARTEKO BANAKETA

Erritmo ebolutiboetan trenbide operadoreen artean dauden aldeak direla eta, operadore bakoitzaren trenbide garraioko parte hartze kuotak pixka bat aldatu egin dira azken hamarkada honetan zehar.

EAEen, trenbide moduen artean Metroa dugu nagusi, desplazamendu kopururik handiena biltzen du eta (%60). Renfe Aldiriek eta Euskotrenek ere bidaia bolumen handia biltzen dute. Presentzia hori, gainera, handitu egiten da aztergai den eragin eremua zabaltzen den heinean, azken operadoreek presentzia handiagoa baitaude udalerriaz gaindiko loturretan.

Grafikoa 23. Trenbide operadoreen merkatu kuotaren banaketa. 2006



Iturria: Operadoreek emandako datuak. Geuk egina.

2.4 Laburpena eta ondorioak

Atal honetan, 2006ko batez besteko lanegun bateko desplazamenduen garraio eskaera osoa aurkezten da, aztertutako garraio modu bakoitzaren arabera erantsia (automobila, autobusa, hegazkina eta trenbidea).

2.4.1 Bidaiari bolumena

EAEko eskaera, 2006. urtean, eguneko 3.587.383 bidaiari izan zen.


Desplazamendu horien tipologiari dagokionez, %91,3 EAE barruko bidaiak dira; kanpo bidaiak, berriz, %7,9 dira eta gainerako %0,8, azkenik, igarotzako bidaiak.

Taula 28. Bidaiariak, desplazamendu tipologiaren eta garraio moduaren arabera. Batez besteko laneguna. 2006

BIDAIK	Automobila	Autobusa	Hegazkina	Trenbidea	GUZTIRA
Barnekoak	2.240.001	584.473		451.570	3.276.044
Bertan sortuak edo kanpokoak	251.850	16.331	9.122	4.934	282.237
Igarotzan	28.949				28.949
GUZTIRA	2.520.800	600.804	9.122	456.504	3.587.230

Iturria: Operadoreek emandako datuak. Etxez etxeko inkesta. Geuk egina.

Grafikoa 24. Bidaiariak, desplazamendu tipologiaren arabera. 2006



Iturria: Operadoreek emandako datuak. Geuk egina

2.4.2 Banaketa modala


Automobila, eguneko 2.520.800 bidaiarirekin, desplazamenduak egiteko garraio bide nagusia izan zen eta guztira desplazamenduen %70,3 bildu zuen. Jarraian, autobusa, %16,7ko portzentajearekin. Hirugarren lekuan, trenbidea, egunero batez beste 456.657 bidaiari garraiatu zuena, hau da, %12,7. Azkenik, presentzia txikiena hegazkinak izan zuen, eguneko 9.122 bidaiarirekin (%0,3).

Taula 29. Desplazamenduaren eta garraio bidearen tipologia.%. 2006

BIDAIAK	Automobila	Autobusa	Hegazkina	Trenbidea	GUZTIRA
Barnekoak	68,4	17,8	0	13,8	100
Bertan sortuak	89,2	5,8	3,2	1,7	100
Igarotzan	100				100

Iturria: Operadoreek emandako datuak. Geuk egina.

Grafikoa 25. Bidaiariak, garraio bidearen arabera. 2006



Iturria: Operadoreek emandako datuak. Geuk egina.

Dena den, garraio bide bakoitzaren sartze kuotari erreparatuz gero, ikusten da badi-rela aldeak, desplazamenduaren tipologiaren arabera. Hala, garraio bide kolektiboek barneko bidaietan daukate ordezkagaitasunik handiena (autobusak %17,8 eta trenbideak %13,8) bertan sortutako edo igarotzeko bidaiekiko, non ibilgailu arina ia erabateko protagonista dugun.

2.4.3 Ondorio nagusiak

- ✓ 2006an eskualde arteko desplazamenduen eskaera 3.587.383 bidaiarik egin zuten. Eskaera horren %91,3 barneko desplazamenduetan biltzen da; %7,9, berriz, kanpoko bidaietan, eta %0,8 igarotzako desplazamenduei dagokie.
- ✓ Automobila dugu, alde nabarmenez, modurik erabiliena, batez besteko lanegun bakoitzeko 2.520.800 desplazamendurekin. Hori da, hain zuzen, desplazamendu guztien %70. Presentzia handiago hori bidaietako tipologia guztietan gertatzen da.
- ✓ Autobusak hartzen duen merkatu kuota aipatzeko modukoa da barne desplazamenduei dagokienez (%17,8), portzentaje hori nabarmen jaisten bada ere bertan sortutako bidaiari erreparatuz gero (%5,8).
- ✓ Bidaiarien trafikoa Loiuko eta Hondarribiko aireportuek bereganatzen dute, batez ere lehenak.
- ✓ Loiuko aireportuak nagusi izaten jarraitzen du EAE barruan, bidaiarien eguneroko mugimenduen %88tik gora biltzen baitu.
- ✓ Hondarribiko aireportuak Madril eta Bartzelona helburu dituzten hegaldi ugari biltzen du. Tokiko izaera duen azpiegitura da, erabiltzaileak inguru hurbilekoak baitira, batez ere Bidasoa eta Donostia aldekoak.
- ✓ EAEn, bidaiarien aireko trafikoaren hiru laurdenek etxeko izaera du.
- ✓ Trenbide moduak, Metroa ere kontuan hartuta, presentzia handia du eskualdeko loturetan.
- ✓ Trenbide modua, duen benetako ahalmenaren oso azpitik dabil, desplazamendu mota bakoitzean bidaiari kopuru txikiena mugitzen duena baita.
- ✓ Trenbideak 456.657 desplazamendu biltzen du eguneko, eta horien artean %98,9 barnekoak dira. Eta hori, zalantza barik, beti barne loturak darabiltzaten erabiltzaile ugari zori zor zaie.